

KONPETENTZIEI EKARPENAK

1. Komunikazio linguistikorako konpetentzia

ADIERAZI, BAI AHOZ BAI IDATZIZ ERABILITAKO PROZEDURAK, PENTSAMENDUA EGITURATZEKO BALIAGARRIAK DIRELAKO. HIZKERA MATEMATIKOA, BERA ERE, KOMUNIKAZIORAKO BIDE ZEHATZA ETA AHALMEN HANDIKOA BAITA .

2. Matematikarako konpetentzia

Razonamendu matematikoa ahalbidetzen duten trebeziak eta jarrerak aplikatu, argudio matematikoa ulertu, hizketa matematikoan adierazi eta integratu ezagera matematikoa beste zenbait ezagera tipoekin ondorioak lortzeko, zihurgabetasuna murrizteko eta azken finean eguneroko konplexutasun desberdinetako egoerei aurre egiteko.

3. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia

MODELOAK SORTZEAK, EGOERA ERREAL BAT INTERPRETATZEKO BEHAR DIREEN ALDAGAI NAGUSIAK ULERTZEA SUPOSATZEN DU; SINBOLIKOKI ERREPRESENTATU ETA KONPORTAMENDU JOERAK EZAGUTU.

4. Konpetentzi digitala

TRESNA TEKNOLOGIKOAK ERABILI PROBLEMEN EBAZPENERAKO. HIZKERA GRAFIKOA ETA ESTATISTIKOA ERABILI ERREALITATE HOBETO DESKRIBATZEKO.

5. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia

GERTAERA SOZIALAK DESKRIBATU. MATEMATIKAK, ANALISI FUNTZIONALA ETA ESTATISTIKAREN BIDEZ, ERABAKIAK HARTZEKO IRIZPIDE ZIENTIFIKOAK ERAKARTZEN DUTE. EGINDAKO ERROREAK IKUSPUNTU POSITIBOAREKIN ERE BADU GARRANTZIA, AHALBIDETZEN BAIT DU BESTEEN EKARPENAK BALORATZEN ETA AINTZAT HARTZEN. HORRELA, BESTEEK ERABILI DITUZTEN BIDE ALTERNATIBOAK AMETITZEN DIRA.

6. Konpetentzia kulturala eta artistikoa

Ezagera matematikoa da, berez, kulturaren adierazpena. Partikularki, Geometria adierazpen artistikoaren zati integrala da, inguruan daukagun mundua deskribatzeko eta ulertzeko tresna bait da.

7. Ikasten ikasi

Garatzen diren ikuspegi heuristikoak – orokorrak -, informazioa tratatzeko ereduak suposatzen dute. Konptetentziak lortzeko trebetasunak indartzen ditu, hala nola autonomia, iraunkortasuna, sistematizazioa, erreflexio kritikoa eta komunikatzeko trebetasuna.

8. Norberaren autonomia eta ekimenerako konpetentzia

PROBLEMAK EBAZTEKO PROZEDURAK AUTONOMIA ETA EKIMENERAKO KONPETENTZIA SUSTATZEN DUTE, ESTRATEGIAK PLANTEATZEKO ERABILTZEN DIRELAKO, BAITA ERE ARRISKUAK GAIN HARTZEKO ETA ZIURGABETASUNAREKIN BIZITZEKO, ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAK KONTROLATUZ.